



## **1.ZIRKULARRA**

### **LIZENTZIEN TRAMITAZIOA**

**2019-2020 Denboraldia**

#### **1) JOKALARIEN ADINA:**

**AFIZIONATUAK:** 2001ko Urtarrilaren 1 a baino lehenago jaiotakoak.

**JUBENILAK:** 2001, 2002 eta 2003 urteetan jaiotakoak.

**KADETEAK:** 2004 eta 2005 urteetan jaiotakoak.

**INFANTILAK:** 2006 eta 2007 urteetan jaiotakoak.

**INFANTIL TXIKI:** 2007 urtean jaiotakoak.

**23 URTE-AZPIKOAK:** 1997ko Urtarrilaren 1etik aurrera jaiotakoak.

#### **EMAKUMEZKOAK:**

EMAKUMEZKO AFIZIONATUAK (FA): 2001ko Urtarrilaren 1 a baino lehenago jaiotakoak.

EMAKUMEZKO JUBENILAK (FJ): 2001, 2002 eta 2003 urteetan jaiotakoak.

EMAKUMEZKO KADETEAK (FC): 2003,2004 eta 2005 urteetan jaiotakoak.

**2)Infantilen lizentziak, bai gizon bai emakumezkoen kasuetan, eskolarrak dira eta era honetan bideratuko dira:**

#### **OHOREZKO INFANTILA (NESKAK ETA MUTILAK)**

**-Federazioko egoitzan**

**-Azterketa medikua eta Mutualitatean alta.**

#### **INFANTIL TXIKI (MUTILAK)**

**-Federazioko egoitzan**

**-Azterketa medikua eta Mutualitatean alta.**

#### **LEHENENGO INFANTILA (NESKAK ETA MUTILAK)**

**-Eskualde ordedkaritzetan**

**-Lehiaketaren izaera kontuan izanda, mutualitatea eta azterketa medikua aukerakoak izango dira baina gomendagarriak edozein kirol jarduerak bere baitan dauzkan baldintzak saihesteko.**

3) A. Lehenengo aldiz lizentzia egiten duen jokalaria, futbolean jardun dezakeela adierazten duen beharrezko mediku azterketa aurkeztu beharko du eta NAN-aren fotokopia adina baieztatzeko. Nahiz eta lizentzia egina eduki, aipatutako agiria aurkeztu arte ezingo du jokatu.

B. Lizentzia egiten duten adingabeko jokalariek (I, K, J, FC eta FJ lizentziak), gurasoen baimena aurkeztu beharko dute.

4) Araudi-xedapena dela eta, klubek, maila ezberdinetako talde bakoitzeko gehienez **25 futbolari** inskribatu ditzakete eta **20 jokalaria Infantilen kasuan**.

5) **14 urte** edo gehiagoko lizentziak ez dira bideratuko ezta ere berrituko Nortasun Agiria aurkezten ez bada.

6) Entrenatzailearen lizentzia eta kontratuaren bideratzea jokalarien lizentziekin batera edo lehenago egin beharko da.

7) Entrenatzaile, 2. Entrenatzaile, Prestatzaile Fisiko, Atezain Entrenatzaile, Mediku, OLT, Osasun Laguntzaile, Material Arduradun, Laguntzaileen eta Delegatuen lizentziak tramitatu ahal izateko **EZINBESTEKO**A izango da Erregistro Nagusitik lortutako delitu sexualik gabeko ziurtagiria ekartzea.

### **8) JOKALARI ATZERRITARRAK:**

Federazio honek, euskal lizentzia guztien arduradun legala den Euskadiko Futbol Federakundeak hartutako akordioari jarraituz, erabaki du, 2018/2019 denboraldian ez direla atzerritar jokalarien lizentziarik tramitatuko, ez igorriko, jokalaria FIFA-tik datorren baimena eduki bitartean.

Horretarako 19. Artikuluak “FIFA-ko estatutu eta jokalarien transferentziarako araudia” ezartzen dituen baldintzak bete behar dira derrigorrez. [www.eff-fvf.org](http://www.eff-fvf.org) Federazioa/ Dokumentuak/ Atzerritarrak atalean informazio gehiago aurki dezakezue eta jokalaria atzerrian futbolean jolastu baldin badu nazioarteko jokalaria transferentzia egin beharko litzateke.

Erabaki hau lehenengo denboraldian lizentzia zuten jokalaria guztietan du eragina eta beraz ez zaie lizentzia berrituko.

## 9) **BERRIKUNTZAK:**

-**Nazional Mailak:** Lizentzia berrituko duten jokalarien zerrendak, bikoiztuta eta alfabetikoki aurkeztuko dira, berritu behar diren lizentziekin batera. Berrikuntza hau, **konpromisoa sinatuta daukatenez eta lizentzia aldatzen ez duten jokalariek** bakarrik egin dezakete. Talde bakoitzeko zerrenda ezberdinak aurkeztuko dira, eta **aurkezteko epea abuztuaren 20an, 20:00etan bukatuko da.** Berrikuntza **ez da baliozkoa izango mutualitateko buletinean sartuta eta ordainduta ez badago.**

- **Autonomiko eta Lurralde Mailak:** Berrikuntzak **klub bakoitzak egingo ditu federazioko web orrialdean dagoen lizentzien programaren bitartez.** Berrikuntza **ez da baliozkoa izango mutualitateko buletinean sartuta eta ordainduta ez badago.** Epea **abuztuaren 20an bukatuko da.**

10) Mediku, OLT, Osasun Laguntzaile, Material Arduradun, eta Laguntzaileen lizentziak era berdinean berritu ahal izango dira, beraz denboraldiko lizentzietan, kontratuaren amaiera data ( bi edo hiru urte) jarri beharko da, eta aurtengo denboraldiari dagokion kontratua aurkeztu beharko da.

11) Lizentzia Nazionalak eta Autonomi eta Lurralde Mailako berrikuntza agiriak aurkezteko epea **uztailaren 1ean hasten da. Dena den, Autonomi eta Lurralde Mailako aurre-inskripzioak ekainaren 10etik aurrera egin daitezke web orrialdearen bitartez.**

## 12) **AZTERKETA MEDIKUAK**

Lurralde eskumen eta eremuko mailetan azterketa medikuak 2 urtetara galduko dute bere balioa, eta azterketa medikurik gabe dauden jokalariai klub bakoitzaren federazioko intranetean gorriz azalduko dira. Gogorarazten dizuegu, **lizentzia bideratzeko kirol gaitasuna ziurtatzen duen azterketa medikua eta bertan dauden datuak erabiltzeko beharrezkoa den baimena derrigorrezkoa dela.** Hau gabe lizentzia ateratzeko behar diren pausu guztiak ezingo dira bete.

## **SALDO ZORDUNEN LIKIDAZIOA**

### **Nazional, Autonomiko eta Lurralde Mailak:**

Saldo zorduna duten klubek 2018-2019 zorraren %100a ordaindu beharko dute, lizentzia definitiboak jaso aurretik.

Ordaintzeko modu berria dela eta **ez da lizentziarik tramitatuko** lehendik ordainduta ez baldin badago.

Donostia, 2019ko abuztua  
GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA

Juan Luis Larrea Sarobe  
Lehendakaria/ Presidente